Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala
www.vitoria-gasteiz.org

# HERRITARREN PARTE HARTZE EREDUA BERRAZTERTZEKO GASTEIZKO UDALAREN PARTE HARTZE PROZESUA

## TXOSTENA
## 3. FASEA

2014ko martxoa-apirila

.

Alor desberdinetatik parte hartu duten pertsonek egindako lan handia izan da hirugarren fase honen bereizgarria. Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzutik, pertsonak zoriondu nahi ditugu egin dituen lanarengatik**.**

**DESKRIBAPENA**

Ekintza hauek egin dira

**1. <u>Martxoaren 12tik 14ra.</u> Bilerak**

Alorren araberako bilerak helburu hauekin:

- Bigarren faseko ekarpenetan oinarrituta egindako dokumentu diagnostikoa baliozkotzea.
- Identifikatutako arazoak lehenestea.
- “Disoñando” galdetegia entregatzea

<u>Elkarteen arloa:</u>
Asteazkena, martxoak 12, 10:00etan
Osteguna, martxoak 13, 18:00etan
<u>Politika arloa</u>
Ostirala, martxoak 14, 10:00etan
<u>Arlo teknikoa</u>
Asteazkena, martxoak 13, 9:30ean

**2. <u>apirilak 8</u> Lan-jardunaldi bateratua**
18:00etan, Europa Jauregia
Helburua: Honen definizio partekaturantz:
Herritarren parte-hartzea

**3. <u>apirilak 11</u> Disoñando galdetegia entregatzeko mugaeguna.**

**DEIALDIA**
Deialdi bat egin genien honako hauei:

- Udalbatza osatzen duten 27 zinegotziei.

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala
www.vitoria-gasteiz.org

- Herritarren parte-hartzeko udal organoetan eta Gazte Planaren Jarraipenerako Foroan parte hartzen duten 141 entitateei.
- Gainera, beste 69 erakunderi parte hartzeko gonbidapena egin zitzaien. Erakunde horiek ez zuten herritarren parte-hartzerako erakundeetan parte hartu, baina udal-sailekin harremana dute. Bi kasutan IGE-en federazioak zeuden tartean. Gonbidapena IGEko kideak ziren elkarteen artean banatzeko eskatzen zitzaien. Gauza bera egin zuen Vicente Abreu Federazioarekin ere.
- Hau da, guztira, 210 gonbidapen bidali zaizkie elkarteei.
- Udaleko 65 teknikariri.

## ERABILITAKO METODOLOGIAK

| | |
|---|---|
| **Txutxu-mutxuak** | Parte-hartzaileak bikoteka elkartzen ziren eta hiru galdera zituen galdetegiaren gainean egiten zuten lan:<br>- Diagnostikorako ekarpenen laburpen-dokumentuak bigarren fasean egindako ekarpena islatzen duela uste al duzu?<br>- Dokumentu hori abiapuntutzat har al dezakegu eredua berrikusteko lanean jarraitzeko?<br>Ba al duzu egin beharreko oharrik? |
| **Arazoak lehenestea** | Horretarako, aurreko fasean antzeman ziren 14 arazori aurre egiteko matrize bat prestatu zen. Bikoteen artean lehenestea zen helburua. Lan hori banaka egiten zen.<br>Ondoren, bi taldetan, lortutako puntuazioen balantzea egin zen eta bilera bakoitzaren emaitza islatzen zuen taula batean jarri zen. |
| **“Disoñando”** | Arazoen dokumentutik abiatuta, erronka desberdinak dituen beste dokumentu bat egin da. Parte-hartzaileei eskatzen zaie etorkizunean lortu nahiko luketen egoerarekin amets egiteko, Behaketen atalean aintzat hartutako ñabardurak eginez.<br>Dokumentua bileran aurkeztu da. Hala ere, lehenetsitako zerrenda egitea ahalbidetzen duen Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuak egindako azterketaren ostean egin da behin betiko dokumentua. |

| | |
|---|---|
| | Galdetegi hau lan-saioetan parte hartu duten pertsonei soilik bidali zaie.<br>Ahal den neurrian, elkarteetako, talde politikoetako edo sail edo udal-zerbitzuetako hainbat pertsonak bete dezaten eskatzen da. |

| | |
|---|---|
| | |
| **1. -Arazoen lehenespenaren aurkezpena** | |
| **2.- Ideia-jasa: Zer ulertzen dugu Herritarren Parte-hartzea esanda?** | Bertan zeuden pertsonei eskatu zitzaien termino hori zehazteko garrantzitsuak ziren izenak esateko. |
| **3.- Fernando Pindadoren erakusketa** | **"Testuinguru kontzeptuala duen proposamena"**[1] |
| **4.- Talde-lanak** | Lortutako zerrendatik hiru izen ezabatu |
| **Partekatzea** | |
| **5.- Talde-lanak** | Talde bakoitzari garrantzitsuenak iruditzen zaizkion hiru izen aukeratzea |
| **Partekatzea** | |
| **6.- Osokoa** | **Herritarren parte-hartzearen helburuak** |

[1] Parte-hartze prozesuaren azalpen-eskema webgunean kontsulta daiteke.

# Parte-hartzeari buruzko datuak

## ALOR POLITIKOA

| | Jardunaldia Martxoak 14 | | Jardunaldia apirilak 8 | | Galdetegia Disoñando |
|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | Parte hartu duten pertsona kop. |
| BILDU | 2 | | 1 | | 1 |
| EAJ | 1 | 1 | 2 | 1 | 4 |
| PP | 1 | 1 | 1 | | 3 |
| PSOE | 1 | | 1 | | 1 |
| GUZTIRA | 5 | 2 | 5 | 1 | |
| | 7 | | 6 | | 9 |

## ARLO TEKNIKOA

| | Jardunaldia Martxoak 13 | | Jardunaldia apirilak 8 | | Galdetegia Disoñando |
|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | Parte hartu duten pertsona kop. |
| Adinekoak | | 2 | | 2 | 7 |
| Gizarte Gaiak | | 1 | | | 2 |
| Haurtzaroa | | 1 | | 1 | 1 |
| Lankidetza | | | 1 | | 1 |
| Kultura | | 1 | | | 7 |
| Berdintasuna | | 2 | | 2 | 3 |
| Euskara | 1 | 1 | 1 | 1 | |
| Gazteria | 1 | | 1 | | 5 |
| Osasuna eta Kontsumoa | 1 | | | | 2 |
| Hirigintza | | 1 | | | 3 |
| Teknologiak | 1 | | 1 | | 5 |
| Mantentze-lana | 1 | | 1 | | |
| Udaltzaingoa | 1 | 1 | | 1 | 2 |
| Gizarte Etxeak | 1 | 3 | 1 | 3 | 18 |
| Udalbatzaren idazkaria | | 1 | | | 2 |
| Hezkuntza | 1 | | 1 | | 7 |
| Cea | 1 | | | | 1 |
| Erdi Aroko Hiriguneko Bulegoa | 1 | | | | |
| Ingurumena | | | | 1 | |
| Herritarrentzako Zerbitzuak | | | 1 | | |
| Herritarren parte-hartzea | | | | | 5 |
| GUZTIRA | 10 | 14 | 8 | 11 | |
| Sailak eta Zerbitzuak 21 | 24 | | 19 | | 71 |

## ELKARTEEN ARLOA

| | Jardunaldia Martxoak 12-14 | | Jardunaldia apirilak 8 | | Galdetegia Disoñando |
|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | Parte hartu duten pertsona kop. |
| GGKE koordinakundea | | 1 | | | 4 |
| AGLE | | 1 | | 1 | 3 |
| Olarizuko Kontseilua auzo-elkartea | 1 | | | | 6 |
| San Martin auzo-elkartea | 2 | | 2 | 1 | 10 |
| Adurtzakoak auzo-elkartea | 1 | | | | |
| Zabalgana Batuz auzo-elkartea | 1 | | | | |
| Aranako auzo-elkartea | 1 | | | | 5 |
| Gasteiz Txiki auzo-elkartea | | 1 | | | |
| Kaleartea auzo-elkartea | 1 | | 1 | | 15 |
| Txagorribidea auzo-elkartea | 1 | | 1 | | 3 |
| Judimendikoak auzo-elkartea | 1 | | | | |
| Salburua Burdinbide auzo-elkartea | | | 1 | | |
| Bizigarri auzo-elkartea | | | | 1 | |
| Ipararriaga auzo-elkartea | | | 1 | | |
| ADSIS fundazioa | | 1 | | 1 | 1 |
| Landazuri Adinekoentzako Zentroa | | 1 | | | |
| Sansomendi Osasun Etxea | | 1 | | | |
| Arana Osasun Etxea | | 1 | | 1 | |
| Judimendi Osasun Etxea | 1 | | | | |
| San Cristóbal Osasun Etxea | 1 | | 1 | | |
| Txagorritxu Osasun Etxea | | 1 | | | |
| Ariznabarra Osasun Etxea | | | | 1 | |
| Los Angeles Osasun Etxea | | | 1 | | |
| AFA Araba | | 1 | | | 1 |
| ASAFES | 1 | | 1 | | 3 |
| HIRUKIDE | | 1 | | | |
| EGK. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua | | 1 | | | |
| Euskal Herriko Eskautak | | 1 | | 1 | |
| SARTU | | 1 | | 1 | 1 |
| Latirili Antzerki Taldea | | 1 | | | |
| Hiesaren aurkako Batzordea | | | 1 | | |
| Ekologistak Martxan | | | 1 | | |
| Soli. Vasco Ecuatoriana | | | | 1 | |
| Gurutze Gorria | | | 1 | | |
| Accu | | | | 1 | |
| San Viator Kultura Elkartea | | | 1 | | |
| Bizikleteroak | | | | | 1 |
| GUZTIRA | 12 | 14 | 13 | 10 | 53 |
| 37 ELKARTE | 26 | | 23 | | |

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala
www.vitoria-gasteiz.org

## Elkarteen parte-hartzearen alderaketa egindako faseetan

| FASEAK | 1. | 2. | 3. |
|---|---|---|---|
| Bizikleteroak | X | X | x |
| Ekologistak Martxan | X | X | x |
| Gaden | X | | |
| Hiesaren kontrako batzordea | X | X | x |
| GGKE-en koordinakundea | X | X | X |
| AGLE | X | X | X |
| Cofradía San Viator kultur elk. | X | X | x |
| Consejo Olárizu auzo-elk. | X | | X |
| San Martín auzo-elkartea | X | X | X |
| Adurtzakoak auzo-elk. | X | X | X |
| Barrenkale auzo-elk. | X | | |
| Zabalgana Batuz auzo-elk. | X | | X |
| Betiko Gasteiz auzo-elk. | X | | |
| Aranako auzo-elk. | X | X | X |
| Cauce Vecinal auzo-elk. | X | | |
| Gure Auzune auzo-elk. | | X | |
| Gasteiz Txiki auzo-elk. | | X | X |
| Bizigarri auzo-elk. | | X | x |
| Zazpigarren Alaba auzo-elk. | | X | |
| Ipar Arriaga auzo-elk. | | X | x |
| Kaleartean auzo-elk. | | X | X |
| Txagorribidea auzo-elk. | | | X |
| Gazteluen Auzoa auzo-elk. | | X | |
| Judimendikoak auzo-elk. | | | X |
| Salburua Burdinbide auzo-elk. | | | x |
| ADSIS Fundazioa | X | X | X |
| Gurutze Gorria | X | X | x |
| Prestaturik | X | | |

| FASEAK | 1. | 2. | 3. |
|---|---|---|---|
| Ariznabarra AZS | X | | x |
| Landázuri AZS | X | X | X |
| Aranbizkarra AZS | X | | |
| Los Angeles AZS | X | | x |
| Sansomendi AZS | X | | X |
| Arana AZS | | | X |
| Los Herrán AZS | X | | |
| Coronación AZS | | X | |
| Judimendi AZS | | X | X |
| San Cristobal AZS | | X | X |
| Txagorritxu AZS | | | X |
| AFA Araba | | X | X |
| Asafes | | X | X |
| Arabako Gorrak | | X | |
| Aspace | | X | |
| Asajer | | X | |
| Hirukide | | X | X |
| Gasteiz-On | | X | |
| Solidaridad Vasco-Ecuatoriana | | X | x |
| ACCU | | X | x |
| Gauekoak | | X | |
| Gazte Sozialistak | | X | |
| Eusko Gaztedi | | X | |
| Belaunaldi Berriak | | X | |
| EGK | | X | X |
| Euskalerriko Eskautak | | X | X |
| SARTU (Saregune) | | X | X |
| Latirili antzerki-taldea | | | X |
| GUZTIRA | 24 | 38 | 37 |

## Datu globalak

Atal honetan, alor bakoitzerako deitutako lan-saioetako parte-hartze presentziala soilik hartu da kontuan.

| | |
|---|---|
| **Talde politikoak** | 4 |
| **Elkarteak** | 37 |
| **Sailak eta Zerbitzuak** | 21 |

Hiru alorretan parte hartu duten pertsonei dagokienez.

| | G | E | Guzt. |
|---|---|---|---|
| **Talde politikoak** | 6 | 1 | 7 |
| **Elkarteak** | 19 | 19 | 38 |
| **Sailak eta Zerbitzuak** | 12 | 15 | 27 |
| **Guztira** | **37** | **35** | **72** |

Prozesu honetan, lau udal-taldeen parte-hartzeari eutsi zaio, eta orain arte, 21 udal-sail egon dira presente faseren batean edo gehiagotan. Uste da interesgarria dela Plangintza Estrategikoko, Komunikazio Zerbitzuko eta Ogasuneko sailak prozesuaren 4. fasean sartzea. Izan ere, zenbait proposamenek eragin egiten die.

Elkarteei dagokienez, 3. fase honetan, 37 erakundek hartu dute parte ekintzetakoren batean, eta 56 erakunde desberdinek prozesu osoko faseren batean edo gehiagotan. Deigarria da bizilagunen elkarteen parte-hartzea (18), baita adinekoen zentro soziokulturalena ere (11).

Orain arte, prozesu honetan, hiru alorretan, 100 pertsona inguruk parte hartu duela kalkulatzen da.

## 3. FASEAREN emaitzak

### LAN SAIOAK. MARTXOAK 12-14

**Helburuak:** Diagnostikoa baliozkotzea eta arazoak lehenestea.

**1. dinamika: Txutxu-mutxuak.** Txosten honi gehitzen zaizkio dinamika honen bidez egindako ekarpen guztiak.
Egungo egoeraren diagnostiko gisa aurkeztutako dokumentua onartu zuten parte-hartzaileek.

**2. dinamika: Lehenestearen ardatza.**

Dinamika honen emaitzei buruz, horrekin lotuta egindako eta apirilaren 8ko jardunaldian aurkeztutako txostena kontsulta daiteke. Arazoak Lehenestearen Azterketa

## Bileren balorazioa

Topaketa bakoitza egin ostean, parte-hartzaileei galdetegi bat eman zitzaien bilerei buruzko ebaluazioa egiteko. Bertatik balorazio hauek atera dira:




Saioaren aurretik bidalitako materialari dagokionez, hainbat pertsonak aipatu zuten oso material trinkoa eta konplexua zela. Aldiz, beste batzuek onartu zuten ez zutela irakurri.

Saio bakoitzerako erabilitako dinamikak modu positiboan baloratzen dituzte. Hala ere, oraingo honetan, kasu batzuetan, konplexua izan da prestatu zen matrizea betetzea. Bestalde, agerian geratu zen esaldiek ez zutela esanahi berbera pertsona guztientzat, azalpen-dokumentu bat eman zitzaien arren. Zenbait pertsonak adierazi zuten erabilitako terminologia zaila zela.

Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da hainbat teknikarik eta elkarteetako ordezkarik erabilitako dinamika hori eskatu izana, eguneroko lanerako baliozkoa eta interesgarria izango

zaiela uste dutelako. Hori dela eta, Parte-hartze Zerbitzutik, bertan parte hartu zuten guztiei bidali genien.

Prozesu hau informazio ugari ari da sortzen. Material guztia webgunean dago eskuragarri kontsultatu nahi duen ororentzat.

Hiru alorren batez besteko balorazio orokorra 10etik 8koa da.

3. fase honetan, prozesu parte-hartzailean inplikatutako hiru alorren topaketa sortzeko beharrari buruzko hainbat proposamen izan ziren. Era berean, arazoa lehenestearen emaitzak kontuan hartuta, Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzutik, prozesu honek "herritarren parte-hartzea" terminoak esan nahi duenaren definizio partekatua izateko beharra baloratu zen. Horrek 4. faseari aurre egiten lagunduko du.

Hori dela eta, 2014ko apirilaren 8an, asteartean, jardunaldi bateratua egitea proposatu zen.

**JARDUNALDI BATERATUA 2014ko apirilak 8**

**Helburuak:**

- o Prozesuan parte hartzen duten hiru alorren artean lan-eremua sortzea.
- o “Herritarren parte-hartzea” terminoaren definizio partekaturantz.

Fernando Pindado herritarren parte-hartzerako gaietan aditua denaren laguntza izan dugu.

Ideia-jasetan, herritarren parte hartzea zehaztuko luketen 31 izen bildu ziren:

| | | | |
|---|---|---|---|
| ERAIKUNTZA | KONPROMISOA | TRESNA | HELBURUA |
| PROZESUA | DISEINUA | IRITZIA | SINERGIA |
| INPLIKAZIOA | BILAKETA | AHALMENA. | AMETSA |
| ESKUBIDEA | ERANTZUKIDET | EGITEKOA | SALAKETA |
| ERAGINA | DEMOKRAZIA | AKORDIOA | AUKERA |
| PARTEKATU | ELKARRIZKETA | IRTENBIDEA | DESADOSTASUNA |
| LAGUNTZA | EZTABAIDA | BEHARRA | MAKINA |
| ADOSTASUNA | ANIZTASUNA | ENTZUTEA | |

Parte hartu zuten pertsonei eskatu zitzaien taldeka – guztira, zazpi- , zerrendako hiru izen ezaba zitzatela. Emaitza honako hau izan zen:

| Izena | Baztertu duten taldeak |
|---|---|
| AMETSA | 5 |
| SALAKETA | 3 |
| DISEINUA | 3 |
| DESADOSTASUNA | 1 |
| HELBURUA | 1 |
| TRESNA | 1 |
| MAKINA | 1 |

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Dinamika honetan, definizioa egiteko garaian adierazgarrienak zirela uste zuten hiru izen aukeratzeko eskatu zitzaion talde bakoitzari:

| AZKEN ZERRENDA | |
|---|---|
| **Izena** | **Lehenesten duten taldeak** |
| ERANTZUKIDETASUNA | 5 |
| ESKUBIDEA | 5 |
| ERAIKUNTZA | 2 |
| DEMOKRAZIA | 2 |
| ELKARRIZKETA | 2 |
| KONPROMISOA | 1 |
| ENTZUTEA | 1 |

Azkenik, aurreko dinamikaren emaitza kontuan hartuta, herritarren parte-hartzearen hiru "zertarako?" adierazteko eskatu zitzaien. Dinamika hau taldeetan egiteko pentsatuta zegoen arren, orokorrean egin behar izan zen; izan ere, laneko saioaren denbora gehiena pasatuta zegoen. Azalpen orokorrean ekarpen hauek egin ziren:

| |
|---|
| Bakean bizitzeko |
| Politika egiteko |
| Gizarte hobea lortzeko |
| Hobeto sentitu ahal izateko eremua lortzeko |
| Arazoak konpontzeko |
| Herritarra izateko |
| Gobernu ona izateko |
| Bidezko gizartea eta gizarte ekitatiboa lortzeko |
| Demokrazian sakontzeko |

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala
www.vitoria-gasteiz.org

## ZER DEFINIZIORANTZ GOAZ?

Apirilaren 8ko bilera bateratuaren emaitzak aztertu ditugu herritarren parte-hartzearen kontzeptuaren definizioarekin lotuta. Horrela, azterketa honen emaitzak behin betiko definiziorako balio digu.

### Nola egin dugu?

Hasteko, lan-saioan proposatu ziren izen guztiak erabili ditugu, taldeak albo batera utzi zituenak izan ezik.

Irizpide hauen arabera ordenatu ditugu.

- Onartutako izen bakoitzari 1 puntu eman dizkiot eta lehenetsitako gisa aukeratu zirenei lehenespenean lortu zituzten puntuak batu dizkiegu.

| | |
|---|---|
| **ESKUBIDEA** | **5** |
| **ERANTZUKIDETASUNA** | **5** |
| **ELKARRIZKETA** | **2** |
| **DEMOKRAZIA** | **2** |
| **ERAIKUNTZA** | **2** |
| **ENTZUTEA** | **1** |
| **KONPROMISOA** | **1** |

Horrek taula hau ematen digu emaitza gisa

### 1. taula: agertu diren izenak eta izen haztatuak

| | |
|---|---|
| 6 | **ERANTZUKIDETASUNA** |
| 6 | **ESKUBIDEA** |
| 3 | **ERAIKUNTZA** |
| 3 | **DEMOKRAZIA** |
| 3 | **ELKARRIZKETA** |
| 2 | **KONPROMISOA** |
| 2 | **ENTZUTEA** |
| 1 | **AKORDIOA** |
| 1 | **BILAKETA** |
| 1 | **LAGUNTZA** |
| 1 | **PARTEKATU** |
| 1 | **ADOSTASUNA** |
| 1 | **EZTABAIDA** |

| | |
|---|---|
| 1 | **EGITEKOA** |
| 1 | **ANIZTASUNA** |
| 1 | **IDEIEN ERAKUSKETA** |
| 1 | **INPLIKAZIOA** |
| 1 | **ERAGINA** |
| 1 | **BEHARRA** |
| 1 | **IRITZIA** |
| 1 | **AUKERA** |
| 1 | **AHALMENA.** |
| 1 | **PROZESUA** |
| 1 | **SINERGIA** |
| 1 | **IRTENBIDEA** |

Gordinean egindako lehenespena izango litzateke. Agian ez digu behar bezainbesteko informaziorik eskainiko, eta hori dela eta, hurrengo pausoa antzeko gaiak adieraz ditzaketen edo elkarren osagarriak diren izenak batzea izan da. Talde hauek sortu dira:

**2. taula: izenak esanahiaren arabera taldekatzea**

| Puntuak | | Taldea |
|---|---|---|
| 1 | AKORDIOA | 1 |
| 1 | IRTENBIDEA | 1 |
| 1 | ADOSTASUNA | 1 |
| 2 | ENTZUTEA | 2 |
| 1 | BILAKETA | 2 |
| 1 | EZTABAIDA | 2 |
| 1 | ANIZTASUNA | 2 |
| 1 | IDEIEN ERAKUSKETA | 2 |
| 1 | IRITZIA | 2 |
| 3 | ELKARRIZKETA | 2 |
| 3 | ERAIKUNTZA | 3 |
| 1 | LAGUNTZA | 3 |
| 1 | SINERGIA | 3 |
| 1 | PARTEKATU | 3 |
| 1 | EGITEKOA | 4 |
| 1 | BEHARRA | 4 |
| 1 | AUKERA | 4 |
| 1 | ERAGINA | 5 |
| 1 | AHALMENA. | 5 |
| 6 | ERANTZUKIDETASUNA | 6 |
| 1 | INPLIKAZIOA | 6 |
| 2 | KONPROMISOA | 6 |
| 6 | ESKUBIDEA | 7 |
| 3 | DEMOKRAZIA | 7 |
| 1 | PROZESUA | 8 |

Ondoren, izenen puntuazioak taldeka batu dira, 1. taulan izendatutako puntuazioak kontuan hartuta.

**3. taula. Puntuazioak taldeka:**

| Puntuak | | Taldea | Guztira |
|---|---|---|---|
| 2 | ENTZUTEA | 2 | |
| 1 | BILAKETA | 2 | |
| 1 | EZTABAIDA | 2 | |
| 1 | ANIZTASUNA | 2 | |
| 1 | IDEIEN ERAKUSKETA | 2 | |
| 1 | IRITZIA | 2 | |
| 3 | ELKARRIZKETA | 2 | 10 |
| 6 | ESKUBIDEA | 7 | |
| 3 | DEMOKRAZIA | 7 | 9 |
| 6 | ERANTZUKIDETASUNA | 6 | |
| 1 | INPLIKAZIOA | 6 | |
| 2 | KONPROMISOA | 6 | 9 |
| 3 | ERAIKUNTZA | 3 | |
| 1 | LAGUNTZA | 3 | |
| 1 | SINERGIA | 3 | |
| 1 | PARTEKATU | 3 | 6 |
| 1 | AKORDIOA | 1 | |
| 1 | IRTENBIDEA | 1 | |
| 1 | ADOSTASUNA | 1 | 3 |
| 1 | EGITEKOA | 4 | |
| 1 | BEHARRA | 4 | |
| 1 | AUKERA | 4 | 3 |
| 1 | ERAGINA | 5 | |
| 1 | AHALMENA. | 5 | 2 |
| 1 | PROZESUA | 8 | 1 |

Taula honen arabera, definizio bat egiteko garaian eta kontuan hartuta aipatzen baldin badugu, honako hauekin egingo genuke topo:

- Aipatu beharreko lehen alorra **elkarrizketa, eztabaita, entzutea, ideien azalpenarekin** lotutakoa izango litzateke**.**
- Bigarren alorra **eskubide** bat betetzearekin eta **demokraziarekin** lotuta egongo litzateke.
- Hirugarrena, herritarren parte-hartzeak **konpromisora, inplikazioa eta erantzukidetasunera** eramatearekin.
- Laugarrena, **laguntza** alorra litzateke, **eraikuntzakoa, partekatzekoa eta sinergiena**.
- Bosgarrena, **akordioetara** iristeko, **adostasunak** lortzeko edo **irtenbideak** bilatzeko eskaintzen zaigun aukera.
- Seigarrena, **aukerarekin, egitekoarekin eta beharrarekin** lotutakoa.
- Zazpigarrena, **eragiteko** gaitasunarekin eta **boterearekin**

- eta azkena, 8.a, **prozesuaren** ideiarekin.

Hala eta guztiz ere, apirilaren 8ko saioan egin ziren lehenespenaren emaitzak kontuan hartu behar ziren. Hori dela eta, haztapen-formula aplikatu ostean, emaitza hau aterako litzaiguke:

**4. taula**

| | | |
|---|---|---|
| ESKUBIDEA | 7 | |
| DEMOKRAZIA | 7 | 41 |
| ERANTZUKIDETASUNA | 6 | |
| INPLIKAZIOA | 6 | |
| KONPROMISOA | 6 | 27 |
| ENTZUTEA | 2 | |
| BILAKETA | 2 | |
| EZTABAIDA | 2 | |
| ANIZTASUNA | 2 | |
| IDEIEN ERAKUSKETA | 2 | |
| IRITZIA | 2 | |
| ELKARRIZKETA | 2 | 14 |
| ERAIKUNTZA | 3 | |
| LAGUNTZA | 3 | |
| SINERGIA | 3 | |
| PARTEKATU | 3 | 9 |
| EGITEKOA | 4 | |
| BEHARRA | 4 | |
| AUKERA | 4 | 9 |
| AKORDIOA | 1 | |
| IRTENBIDEA | 1 | |
| ADOSTASUNA | 1 | 3 |
| ERAGINA | 5 | |
| AHALMENA. | 5 | 2 |
| PROZESUA | 8 | 1 |

Agian hori da arrazoizkoena; izan ere, herritarren parte-hartzea herritarren parte-hartzearen **eskubide** gisa hartzen du eta **demokrazia** terminoarekin lotzen du. **Herritarren inplikazioa eragiten du, erantzunkidetasuna, baina baita konpromisoa** ere.

**Entzuteko** gaitasunean, **deliberazioan**, **eztabaidan, elkarrizketan**... oinarritzen da

Ideiak partekatzeko modu honek **sinergiak** eta **laguntzeko, eraikitzeko,** lotura berriak sortzen ditu.

Herritarren parte-hartzea sustatzeko **betebeharra** duten erakunde publikoentzat eta herritarrentzat **aukera** da. Gaur egun are **beharrezkoagoa** da egungo arazoen konplexutasunaren aurrean.

Horrela, **akordioak** eta **adostasunak** lortuko ditugu **irtenbideak** bilatzeko garaian.

Hori **erabaki politikoetan** agertuko da. Hori guztia **prozesuaren** ikuspegitik.

## Bileraren balorazioa

Honako hau izan zen emandako galdetegian oinarrituta parte-hartzaileek egindako balorazioaren emaitza:




Nabarmendu beharra dago saioaren iraupenari buruzko balorazioa baxuenetako bat dela, baina kasu honetan, hainbat galdetegitan aipatu zelako sortutako interesarengatik iraun zituen bi orduak baino gehiago irautea gustatuko zitzaiela.

**DISOÑANDO**

Martxoaren 12tik 14ra arteko bileretan, lehenestearen ardatzak aztertu ostean,“Disoñando” galdetegian parte hartu zuten pertsona guztiei bidali zitzaien. Aipatutako galdetegian proposamenak egiteko gaiak lehenesten dira.

34 galdetegi jaso dira orotara. Kasu batzuetan, erantzuna banaka eman zuten, baina besteetan, hainbat pertsonaren artean egin zituzten, talde politikoetakoak, elkarteetakoak eta sail edo udal-zerbitzuetakoak.

| Alorra | Galdetegi kop. | Pertsona kop. |
|---|---|---|
| **Politika** | 4 | 9 |
| **Elkarteak** | 12 | 53 |
| **Arlo teknikoa** | 18 | 71 |
| **Guztira** | **34** | **133** |

Galdetegi hauek Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuak aztertu ditu, irizpide hauen arabera:

Identifikazioa

**ERRONKAK:** gaur egun, oraindik ere, lortu ezin daitezkeen etorkizuneko agertokien planteamendua.

**HELBURUAK** epe ertain-laburrera proposatutako helburuetara hurbilduko gaituzten neurriak, ekintzak eta esku hartzeak aintzat hartzen diren planteamenduak.

**IRIZPIDEAK:** helburuak lortzeko baldintzak, eskakizunak edo modua.

Luzera-kontuengatik, txosten honetan ez daude jasota ekarpen guztiak, baina udaleko webgunean kontsulta daitezke.

Galdetegiak aztertu ostean, argi geratu da erronkak ez direla hermetikoak, baizik eta elkarren artean erlazionatzen dira eta elkarren eragina dute. Hori dela eta, zenbait ekarpen eremu batean baino gehiagotan koka daitezke. Aurreko taularen helburua laguntzen aritu diten pertsonek egindako lana balioestea da.

Batzuek esan dute zenbait zailtasun izan dituztela betetzeko garaian.

3. FASE honetan bildutako material guztia (oso ugaria eta aberatsa izan da) erabiliko da hurrengo fasea aurkezteko maiatzaren amaieran edo ekainaren hasieran.